

## EXODOKO TESTIGANTZAK

Siriako gerratik ihes  
egin eta Greziako  
errefuxiatuen  
kanpalekuetan  
amaitu duten  
Mhmood eta  
Abdullah Alkeemek  
anaien gutunak jaso  
ditugu.

*Ezkontzak, bataioak, jaunartzeak,  
lore-zentroak, koroak,  
landare naturalak eta artifizialak,  
zeramika-lanak eta zumezko saskiak.*

***Etxez etxeko zerbitzua!***  
Santiago auzoa, 18  
Tel. 943 862 611

## ZATOZ ITSASOAREKIN GOZATZERA!



Webgunea: [talasoterapiazelai.com](http://talasoterapiazelai.com)

Tel. 943 865100

Talasoaren ordutegia: Egunero irekita 9:30etik 20:30era

Jatetxea eguerdian irekita, eguerdia eta gauean.

Talasoterapia





Jon Txonpe



HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.eus

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkartea

e-maila: elkarte@baleike.com

Erredakzio taldea: Imanol Azkue, Maialen

Odriozola, Juan Luis Romatet, Miriam Romatet,

Peio Romatet, Arnaitz Rubio, Iosu Alberdi,

Jose Manuel Castillo, Jabi Gonzalez Toston,

Izaskun Urbieta eta Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

publizitatea@baleike.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**TOKIKOM**

10

baleike +

## ERREFUXIATUEN KANPALEKUETATIK JASOTAKO GUTUNAK

5

herri galdeketa  
ERABAKIAREN BOST  
AURPEGI

18

erreportajea  
ARGI IZPIAK  
ILUNTASUNEAN

24

erretratua  
ENEKO CARRETERO  
ESKALATZAILEA

30

agenda  
OTSAILA-MARTXOA

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaiaiko Udala



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



kutxa



kutxabank

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



**Arrain eta mariskoak**

**Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak**

7 MARES Izoztuak

Zuloaga plaza, 1  
tel. 943 862 309



Alai auzategia 8  
20750 Zumaiak (Gipuzkoa)

**Diseinu zerbitzuak**  
tel.: 943 14 31 22

**Kopiak eta materiala**  
tel./Faxa: 943 14 31 20  
www.a3zumaia.com  
a3@a3zumaia.com

a3 kopia eta diseinu zerbitzuak

fb



**AL-ANON**

Alkoholikoaren senide eta lagunen elkarteak

**Tel. 650 265 963**

Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00  
larunbatetan, 19:00-21:00

**Agurtzane Okindegia**

Erribera 2 • 943 861 280



**LIBRURU DENDA**

**AIZPURUA**

Aita-Mari auzategia, 17  
tel. 943 861 569

**ALBERDI**

*dekorazioa*

• Eskaiola  
• Pladur-a

696 726188  
943 143261



**Amama taberna**

tel.: 943 543 164  
amamataverna@gmail.com

Ortega y Gasset kalea 4. Zumaiak (Gipuzkoa)



**ATARI TABERNA**

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Ardantzabide, 16 Tel. 943 509 169

**Ardantzabide**

ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com

Denda: Txomin Agirre, 4  
Tel.: 943 862 532

Aroztegia: Santiago, 40  
Tel.: 943 861 631

f

**ARGISUN**

ENERGIA-KONPONBIDEAK

- Berokuntza sistemak
- Girotxea
- Iturgintza
- Energi berriztagarriak
- Eraginkortasun energetikoa

Basadi auzategia 5  
tel. 943 861 995

www.argisun.com  
info@argisun.com



**OKINDEGIA Artxupe**

Nagusia 2 • Tel. 943 861 501

ZUMAIK

OGI-EDER



**Arruti**

ARROPA DENDA



**Bosch Service**

Bosch Car Service

**Autos Zumaia**

Gasolina injezioa  
Diesel injezioa  
Elektrizitatea/Elektronika  
Piztea

Balaztak, ABS, ESP  
Mantentze mekanika  
Motorraren mekanika  
Hozte sistemak

Urola plaza 3-5  
autosumaia@bosch-bcs.com

Tel. 943 861 485

**Azkue**

www.ricardoazkue.com

Txomin Agirre 4, beheak tel. 615 793 406 / 943 862 651  
elena@ricardoazkue.com fax: 943 862 748



**Bakun**

ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L.

Sari Isidro, 25  
20740 Arroa

tel./faxa: 943 148 306  
bakun@euskalnet.net



**Basadi albaitaritza**

Ribaitorio  
Itaki Garmendia

Basadi, 7, beheak - tel. 943 143 310  
www.basadialbaitaritza.com  
www.basadialbaitaritza.com

Gorbea: 11-13 / Arrabaldoz: 15-19:30 / Astelehen goizean eta larunbatetan itala  
Lantekidetasunak: 605 728 737 Etkez ebeko zerbitzuak



**BASUSTA**

erretegia • asador

José Blázquez

Pafila Etxezarreta, 25  
20750 Zumaiak (Gipuzkoa)

Tel.: 943 86 20 73  
943 86 04 38  
asadorbasusta@hotmail.com



**Braky's**

Okindegia • Kafeategia


Izaga kalea, 2  
20750 Zumaiak (Gipuzkoa)

Tel.: 943 57 07 79  
Móvil: 649 967 289

# Erabakiaren bost aurpegi

HERRI GALDEKETETA

Nahi al duzu izan Euskal Estatu Burujabe  
bateko herritarra?



TESTUA:

IOSU ALBERDI ETA JOSE MANUEL CASTILLO

Maiatzaren 7an herri galdeketaren txanda helduko zaio Zumaiari ere. "Nahi al duzu izan Euskal Estatu burujabe bateko herritarra?", galdetuko zaie herritarrei, Urola Kostako beste zazpi herritan bezala. Eskualdeko aurkezpena abenduaren 13an egin zen eta zumaiarren ordezkari gisa bertan izan zirenekin aritu gara galdeketaren inguruan solasean.



**Zergatik Euskal Herriko etorkizuna erabakitzeke herri galdeketaren alde egin?**

**Jon Maia:** Euskal gizarteak aurrerapauso bat emateko momentua dela iruditzen zait. Ematen ez zaigun eskubide hori geuk landu behar dugu. Politikariak ez badira jendeak eskatzen duenari erantzuteko gai, jendeak hartu behar du ardura hori. Horregatik nago herri kontsulta hauen alde, sinbolikoak diren arren, ariketa gisa beharrezkoak iruditzen zaizkidalako.

**Juanito Dorronsoro:** Nik uste dut oso garrantzitsua dela politika guztien azpitik, oinarrian, herri batek erabakitzea zer izan nahi duen. Demokraziaren oinarria hori da. Ez gaude ohituta, inork ez digu galdetzen, eta zergatik ez geuk erabaki? Mugimendu hau Idiazabalen sortzean ikaragarritzko ilusioa egin zidan. Gure herrian korapilatuta gabiltza, ezin konpondurik. Lehen diktadura, ondoren hala moduzko muntaia eginda ezin elkar konpondu. Orain badirudi bakeak egiteko garaia dela eta adiskidetzeko oinarritzkotzat jotzen dut denok elkarrekin erabakitzea etorkizunean zer nahi dugun izan. Erabakitzea oinarritzkoa da.

**Marie Toure:** Herri honen etorkizunak herritarren menpe egon behar duelako. Etorkizunean nire seme-alabek nolako herria izango duten herritarrek erabakitzea oso garrantzitsua iruditzen zait. Are gehiago nire kasuan, kanpotik etorria izanda ere, uste dut hemengoekin elkarlanean etorkizuna eraikitzeke betebeharra dudala.

**Arritxu Iribar:** Ez dut zalantzarik alde egin behar dela, edozein erabaki hartzeko garrantzitsua da, ezinbestekoa, herriak zer nahi duen jakitea eta horrelako erabaki batean zeresanik ez. Norberak izan behar du bere iritzia emateko eskubidea, eta horrek ukazina izan beharko luke: norberak bere iritzia emateko eskubideak bermatuta beharko luke, eta hori hala izanik, Euskal Herriaren etorkizuna erabaki ahal izango dugu.

**Eduarne Egaña:** Euskal Herriak autodeterminatzeko eskubidea dauka. Bere egitura politikoa libre eta modu demokratikoan erabakitzeke herritarrek duten ahalmenean datza eskubide hori. Herri galdeketa ahalmen hori gauzatzea da.



Marie Toure:  
“Etorkizunean nire  
seme-alabek nolako  
herria izango duten  
herritarrek erabakitzea  
oso garrantzitsua  
iruditzen zait”



**Zein onura ekarriko dio Zumaia herriari galdeketak?**

**Jon Maia:** Jendeari egiten dion mesede handiena? Urteetan izan ditugun muga psikologikoak gainditzen dituela. Jendeak ikusten du beraiek ere bidea egitea posible dela, inoren zain egon gabe, bideak ixten dituztenen gainetik. Hori guztia ezin demokratikoagoa da.

Herrian aurretik harremanik ez zuen jendeak elkar ezagutu eta elkarlanean aritzeko ere balio du. Aurreiritzi eta estereotipo asko hausten ditu. Zumaian jende desberdina elkartu eta batera lan egitea sana da.

**Juanito Dorronsoro:** Herri baten heldutasunaren adierazgarri ere da. Pertsonen nortasuna heltzean erabakiak hartu behar dituzte eta berdin gertatzen da herriekin. Parte hartzea herri baten nortasunaren neurgailua da. Parte hartze handia

elkarrekin hitz egiteko gai izan garen seinale izango da. Helburua bezain garrantzitsua da bidea, eta guztion beharra dago lortzeko.

**Marie Toure:** Hasteko, jende multzo anitz bat elkarlanean jarri du helburu zehatz bat lortzeko, eta hori jada positiboa da. Bestetik, uste dut elkarrekiko errespetu ariketa bat dela gai garrantzitsu baten inguruan herritarrek beren iritzia eman ahal izatea. Herri honek ezberdinen arteko errespetua behar duelako aurrera egiteko.

**Arritxu Iribar:** Zumaiarren iritzia zein den, zer pentsatzen duten, zer nahi duten jakingo dugu eta horren arabera gero urratsak egin, baina edozertarako ezinbestekoa da zumaiar bakoitzak pentsatzen duena adierazi ahal izatea eta benetan herritar oso sentitzea; inork ezin du zumaiarren ordezkari erabaki ezta beraien aurkako erabakirik hartu ere. Horrela ulertzen dut nik.

**Eduarne Egaña:** Zumaiarroi gure iritzia adierazteko beste aukera bat eskaintzen digu, eta hori beti da onuragarria.

**Zein arrazoi emango zenieke galdeketa parte hartu nahi ez edota zalantzan dauden herritarrei?**

**Jon Maia:** Ezin dugula beste aldera begiratu arazo baten aurrean. Herri honek zer izan nahi duen ez zaigu inoiz galdu eta horrek arazo asko ekarri ditu. Ezin da utzi gizartearen hain zati handiak arazo bezala bizi duen zerbait: identitatea, estatus politikoa... Zer izan mundu honetan, azken finean. Gizarte heldu baten ardura da gauzak konpontzea, eta nola konpondu galdetzen baino hobeto. Denok parte hartzea nahitaezkoa da, bestela gauzak konpontzeke geratzen dira. Orain, gainera, jendea bera da aukera sortu duena.

**Juanito Dorronsoro:** Nik eskua luzatuko nioke. Goazen elkarrekin aurrera, oinarritzko gauzak egiten ari garelako. Igo gaitezen ontzira eta goazen itsasorantz benetako askatasunaren eta bakearen kairaino.

Hitz egin beharra dago eta parte hartzea beharrezkoa da. Bakoitzak bere iritzia emanda, denok erabaki dezagun.

**Marie Toure:** Askotan gustuko ez ditugun gauzak kritikatzeko ditugu eta besterik ez dugu egiten, baina galdeketa parte hartu eta gauzak aldatzeko aukera emango digu. Nik, behintzat, hasieratik ez nuen zalantzarik egin ekimen hau sustengatzea erabakitzerakoan, jendeak bere lanez aurrera ateratako ekimena delako.

**Arritxu Iribar:** Lehen urratsa galdeketa egin ahal izatea dela, erakutsi behar dugula gure iritzia balio duela eta eskubidea dugula alde- kontra- edozer... adierazteko, baina adierazi egin behar dela gai honetan eta besteetan... Gerta daiteke itxaropena galduta izatea batek baino gehiagok, Zumaiar bai eta Baionar ez, edo Tuteran..., denok aldarrikatu behar dugu iritzia emateko eskubidea eta zenbat eta gehiago izan indar handiagoa izango dugu lortzeko.

**Eduarne Egaña:** Herri galdeketa erronka parte hartzea dela azpimarratuko nuke. Baiezkoa edo ezezkoa bozkatu, garrantzitsua herritarrek horrelako herri galdeketa batean parte



## ZUMAIAKO ORDEZKARIAK

*Ezkerreko orrian: Arritxu Iribar eta Marie Toure; eskuinekoan: Eduarne Egaña, Joanito Dorronsoro eta Jon Maia.*



## BEDUA ITURGINTZA S.L

ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMALEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industriegunea, 9  
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa  
tel. 943 143 369

## EGOKI



Erloju  
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6  
tel. 943 861 787



## BEHEKO PLAZA

taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

**BERRITUA**

Eusebio Gurrutxaga plaza  
Tel. 943861700



Amalako plaza, 13 tel. 943 862 385  
www.xantialtzariak.com



Erribera kalea, 6 20750 Zumai tel. 943 143 097  
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak  
Telekomunikazioak  
Informatika  
Internet

**BEEP**

**DIGITAL+**



## ERNIO TABERNA

V. Arrate, 3

Tel. 943 860 045

## ERTZ INFORMATIKA



Portatilen mugikorrak  
eta tableten konponketak

Beheko plaza

tel./faxa: 943 143 395

## Rosi

Garbiketak

Etxeak eta dendak  
Enpresa eta auzo lanak  
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A

tel. 943 016 353

## UZKUDUN taberna



Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 - 20750 Zumai (Gipuzkoa)  
Tel: 943 11 63 97

## Galdona



Mendiako muntzela, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346  
Juan Belmonte, 15 faxa 943 861 300

## Ganbara

TABERNA

Juan Belmonte, 5

tel. 943 861 057



## Garoa

kafetegia

Txomin Agirre kala

Tel. 943862181

## GLENCOE

INGLES AKADEMIA

TALDE MURRIZTUAK

Zunbilo kalea, 12 behe  
tel. 670 391 777

**matrikulazioa dohainik!**



## Zapaia

Erribera kalea  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
tel. 943 861 973

## yoana ileapaindegia

Amaia plaza,  
2 behe  
943 143 278



Ikastegi homologatua

## Golden Gate

Institute  
hizkuntz eskola

Erribera kalea 1 bis, behe  
tel./faxa 943 865 020  
info@goldengateinstitute.com





GORKA ZABALETA

hartzea da. Herri bizi eta sortzaile bat nahi badugu, parte hartzeko ekimenak aurkezten zaizkigunean erantzun egin behar dugu. Hauteskundeak, bilera irekiak, inkestak, edo herri galdeketak izan, herritarrok gure iritzia adierazteko ditugun aukerez baliatu behar gara.

**Nahiko erabakitze ahalmen al dute egun herritarrek, zure ustez?**

**Jon Maia:** Ez, nik uste dut oraindik demokrazia zuzenaren kulturarik ez dugula. Uste dugu lau urtean behin bozkatuta nahikoa dela, eta irabazi duen horrek jada badaukala lau urtez edozer egiteko eskubidea. Tartean, ordea, herri batentzat edo lurralde batentzat garrantzitsuak diren gaiak ateratzen dira, behar bada hauteskundeetan bozkatatukoarekin zerikusirik ez dutenak.

Lege aldetik ez dugu barneratuta parte hartzeko demokrazia, ezta kulturalki ere. Horregatik honelako galdeketak beharrezkoak dira, baina gai gehiagotan egin beharko lirateke. Jendearentzat aldaketa garrantzitsu bat dakarrenean jendeak parte hartzea eskatzeko ohitura sistematizatu eta arautu egin beharko litzateke.

**Juanito Dorronsoro:** Oinarrian gure esku dugu erabakitzea. Umeak bezala, ohituta gaude, alderdiek markatutako bidean, zerbait galdetzen digute eta hori erantzuten dugu. Gure benetako galderak askotan erantzunik gabe geratzen dira. Ez zaigu otu gure ardura dela iniziatiba hartzea.

Oinarrian, beraz, herri batek eskubide guztiak ditu, baina praktikan uste dugu ez dugula ahalmen hori. Idiazabalen hasi eta egungo galdeketetara pausoak ematen ari gara eta ikasiz goaz.

**Marie Toure:** Ez dut uste ni pertsona egokiena naizenik Euskal Herriko jendeak erabakitze ahalmen asko edo gutxi duen epaitzeko. Izan ere, oraindik ere, urte gutxi daramatzat zuen artean sistema politikoa sakon ezagutzeko. Baina ez dut zalantzarik herritarren parte hartzea bultzatzen eta guztiona den herria zer izan behar duen erabakitzea bilatzen duen ekimen honek nire sostengua izango duela.

**Arritxu Iribar:** Praktikan ez, errealitatean ez..., horrek garbi erakusten du zer “demokrazia”-tan bizi garen, baina izan behar lukete. Herriak du ahotsa eta politikariak bitartekari lana egin behar dute, herriak nahi duena bideratzeko tresnak jarri behar dituzte. Hori lortu behar dugu, herritarrek ahalmena izatea eta agian beste moduren bat izango da, baina momentuz galdeketa da dugun modurik egokiena herritarrek nahi dutena jasotzeko.

**Eduarne Egaña:** Ukaezina da azken urteotan herritarrek parte hartzeko dinamikak edo ekimenak ugaritu egin direla, eta gero eta ohikoagoak bilakatzen ari direla. Etorkizunean ere hala izango da. Bide honetan, asko dugu, denok, oraindik ikasteko, eta hobetzen joaten garen heinean, gizarte biziago eta sortzaileago bat izango dugu. ■

# Errefuxiatuen kanpalekuetatik jasotako **gutunak**

TESTUA: NEREA EIZAGIRRE

Hilabeteak aurrera doaz, neguko hotzak izoztu dizkigu hezurak Kantauri ertz honetan. Urtaroak ere igarotzen doaz errefuxiatuen kanpalekuetan, eta han dena da muturrekoagoa. Hotzetan hotzena bizitzen ari dira, tarteka elur kapek ere estali dituzte errefuxiatuen kanpalekuetako zoruak.





**MHMOOD  
ALKEEMEK**

*1983ko maiatzaren  
3an jaioa Palmyran,  
Sirian. Kamioi gidaria.  
Egun Thessalonikiko  
errefuxiatuen  
kanpalekuetan dago.*

Denbora aurrera doa, baina milaka errefuxiatuk harrapatuta jarraitzen dute, kanpalekuetan, ez-lekuetan. Atzean gerra utzi zutelarik, eta aurrean Europar Batasunak hertsiki itxitako at-eak, haientzat eguneko zeregin bakarra bizirautea da. Azken hilabeteetako bizipenen berri, ea nola dauden galdetu diegu

Abdullah eta Mahmood anaiei. Biak Chios uhartean eza-gutu genituen, aurreko ekaineko *Baleiken* haien berri eman genizuen, eta orain, Internet bidez, zenbait galdera bidali dizkiegu, haiek gutun gisa erantzun dizkigutenak. Hemen behean euskarara itzuli ditugu bi anaiek kontatutakoak:

Nik Chiosen jarraitzen dut. Jada urtebete eta piko pasa da, etxetik hanka egin behar izan genuela, anaia Mhmoodek eta biok. Harekin egin dut orain arteko ia bidaia guztia, baina duela pare bat hilabete Mhmoodek Greziako penintsulara igarotzea lortu zuen. Biotatik hura izatea erabaki genuen, osasun arazo txiki bat duelako, eta hobe da hura iristea lehenago Europara. Nik hemen jarraitzen dut, Chioseko errefuxiatuen kanpalekuan, hilabeteak eta hilabeteak, ez atzera eta ez aurrera. Hara, hona iritsi nintzenean jarrera aktiboa nuen, oso positiboa, izatez horrelakoa naizelako, ezin geldirik egon, edozertan laguntzeko prest. Baina hilabeteak aurrera doaz eta dena gainbehera doa, hasieran kanpalekuetako beste guztiei animatzen saiatzen nintzen, denok goiari eutsi behar geniola argi nuen..., baina jada muturreko une batera iritsi gara, eta depresioari, frustrazioari eta gainbehera sakon honi ezin diogu bueltarik eman. Errefuxiatuen kanpalekuetako bizi baldintzak, astetxo batzuetarako agian balekoak izan litezke, baina boluntariook ere ikusi duzuen gisan, hemen ezin da luzaroan bizi. Bertako bizi baldintzen ondorioz jendea gaixotasunak areagotzen ari zaizkio, batzuei heriotzeraino, hori eragin fisikoei dagokionez. Eragin psikologikoak ere nabarmenak baitira. Hemen, heriotzak gertatzen ari dira, eta jaiotzak, haur batzuk egoera honetanxe jaio dira, eta hemen bizi dira eguntxo batzuk besterik ez dituztenean. Ni erizaina naiz izatez, eta badakit hemengo baldintzek zer osasun kalte eragiten ari zaizkigun. Nik, egia esateko, apenas ikusi dut aldaketarik errefuxiatuen kanpalekuetan hilabete luze hauetan zehar, barkatu horren gordin esatea, baina hala da. Makina bat bider hitz egin dut hainbat Gobernu Kanpoko Erakundeetako boluntarioekin, arren eta arren kanpalekuan ur beroa behar dugula eskatuz. Negu hotz honetan ur berorik gabe hilabeteak ematean, hezetasun honekin..., gorputzerako izugarria da. Boluntarioen erantzunak honakoak izan dira: “Ezin dugu, ez dugu lortzen, eskatuko dut, baina ez da nire ardura”. Nik boluntario asko ezagutzen ditut, eta badakit haiek ez direla gure egoeraren arduradun inondik inora, haiek ere ahal duten onena ematen dute; gobernuen kontua da, baina errealitate bakarra da gu hemen gaudela bizirauten ahal dugun moduan. Guk Europara joan nahi dugu, ez ilusio berezia egiten digulako egoerak, badakigu European jende oso ona, besoak zabalik hartuko gaituenarekin topo egingo dugula. Baina jakitun gara, baita ere, hara iritsiz gero, gure bizitza oso zaila izango dela han. Badakigu European, gorroto, arrazismo, faxismo handia ere topatuko dugula, eta gure egunerokoan horri egin beharko diogula aurre. Komunikabideak egunero jarraitzen ditugu, eta lagunak ere baditugu European bizi direnak egun, eta europarrak Trumpek egin duen “musulmanekiko debekuaz” larrituko dira, baina guk Europako ateetan bizi dugun egoera oso antzekoa da, izen ezberdinarekin, baina oso antzekoa. Barka iezadazue, ez daukat gogo handirik orain artean bizitako momentuak gehiago konpartitzeko edota gehiago pentsatzeko, ezin dut gehiegi pentsatu arrazoiez, egoeraz, bestela behera etortzen naiz, soilik egunerokoari aurre egiteaz pentsatzen dut. Baina gutun hau irakurri behar duzue, azken hitz batzuk esango ditut. Ez dago alderik zuetako edonoren edota errefuxiatu baten artean. Niri sekula burutik pasa ere ez zitzaidan egingo bizitzen ari naizena niri gertatuko zitzaidanik, nire bizitza lasaia eta segurua zen. Uste baduzue bizi osorako ziur biziko zarete, agian bai, eta benetan nahiko nuke hala izatea eta gu bizitzen ari garena beste inork ere ez bizitzea; baina ziurtasunik ez duzue. Edonor izan liteke errefuxiatu etorkizunean.

*Abdullah Alkeemek idatzitako gutuna,  
Chios uhartetik (Grezia)*





**ABDULLAH  
ALKEEMEK**

*1991ko urtarrilaren  
31n jaioa, Palmyran,  
Sirian. Erizaina. Chioseko  
errefuxiatuen kanpalekuan  
dago, 9 hilabete inguru  
daramatza bertan.*

Chioseko uhartean hotz mingarria egin du azken hilabeteetan; gainera, imajinatu egin behar duzue gu desertutik gatzela, ez genuen orain artean halako hotzik sekula bizi izan gure gortzetan. Ez dago esan beharrik, komunikabideetan ikusi dituzuen argazkietatik, errefuxiatuen kanpalekuetan ez dugu baliabiderik hotz honi aurre egiteko. Hemen, halabeharrez bizi behar garen pertsonok, ahal dugun moduan egiten diogu aurre neguko klima gogorrari, edota datorren edozeri, ez dago besterik. Legalki oso pertsona gutxik uzten dituzte errefuxiatuen kanpalekuak. Tarteka esaten digute “elkarriketa” modukoak ditugula eta administrari batek zenbait galdera egiten dizkigu, asilo eskaeren tramitazioa egiteko, baina horien gehienek erantzunik ez dugu jasotzen. Familiaren bati, edota pertsona konkreturen bati, iritsi zaio herrialderen baterako asilo ofiziala, baina oso kasu urriak dira, eta gehienetan kasu bereziak izan ohi dira, gaixotasunen bat dutelako senideren batek edo antzekoren bat. Pertsona askok utzi dute Chios uhartea, baina ez ofizialki, ahal duten bezala Greziako penintsulara iritsi dira, gero handik gehienek Balkanetako bidetara ekiteko. Nik ere halaxe egin nuen duela bi hilabete inguru, Chios atzean utzi eta Greziako penintsulara iritsi nintzen; gero, Atenasen egon naiz hilabete batzuk bertako kanpalekuetan; eta egun Thessalonikiko kanpalekuan nago. Chioserainoko bidaia anaiarekin egin nuen, baina berak Chiosen gelditu behar izan zuen, eta nik martxa egin. Gogorra izan zen anaia agurtzea, okerre-nak pasa ditugu elkarrekin, baina elkarrekin konpartitzen genuen, behintzat, eta orain bakarrik nago. Azken asteetan, saiakera bat baino gehiago egin dut Greziako muga zeharkatzeko, baina oraingoz bi bider Greziako poliziak harrapatu gaitu mugan eta atzera egin behar izan dugu. Chiosen denak duela hilabete batzuk bezalaxe jarraitzen du, Janaririk ez da falta baina osterantzean, ez dugu gaixotasunetarako edota inolako arreta berezirik. Bertan, lanean ari diren boluntarioak baldintzak hobetzen saiatzen ari direla ikusten dugu, janariarekin edota SMHko taldeak anbulantzia bat ekarri du. Baina egoerak oso latza izaten jarraitzen du errefuxiatuen kanpalekuetan, bereziki gaixotasunak dituzten pertsonentzat, haur eta nagusientzat egoera oso latza da. Hau irakurriko duten pertsonetara esan nahi diet ni zuek bezalakoxe pertsona bat naizela, zuen herrialdeetara turista gisa etorri nahiko nukeena zuen paisaia ederrez gozatu ahal izateko, nire herrian lasai biziko nintzatekeen bitartean. Ez dut errefuxiatua izan nahi, ez dut nahi, baina nire herrian eztanda egindako gerrak behartu nau nire bizitza atseginatzean utzi eta azken urte eta pikoan egindako bide luzea egitera. Gauza latzak bizi izan ditut, baina azken hilabeteetan gogoan dut une bat kontatuko dizuet. Nire anaia Abdullahrekin, Palmyra gure hiria atzean uzten ari ginela, dena azkar batean gertatzen ari zen, gure gurasoak eta beste senitartekoak agurtu, kamioi hartara igo..., baina momentutxo bat izan nuen, ia hiritik ateratzen ari ginela, eta guztiok azken begirada sakona ematen ari ginelarik kale eta txoko haiek agurtzeko, nik begiak zarratu nituen unetxo batez. Pentsatu nuen, Palmyra, nire hiria, ez nuen dena suntsituta gogoratu nahi betirako, eta begiak zarratu nituen, eta gerra aurreko irudiak gogoratzen saiatu nintzen. Ez dakit zer gehiago kontatu, oso-oso triste bizirauten dugu egunero, baina bizitzak aurrera jarraitzen du beti.

*Mhmood Alkeemek idatzitako gutuna,  
Thessalonikitik (Grezia)*





## ELKARTASUNA

Abdullah eta Mhmood Alkeemek anaiak  
Libe Aizpuru eta Nerea Eizagirre zumaiaarrekin,  
2016ko udaberrian, Chios uhartean.

## “ZUMAIA” izeneko Anbulantzia ibiliko da Chioseko Errefuxiatuen Kanpalekuan

Zumaiaiko Errefuxiatuen Harrera Taldea elkarlanean aritu izan da *Zaporeak* taldearekin, eta baita SMH (Salvamento Marítimo Humanitario) taldearekin ere. Azken hori, batik bat erizain, mediku eta suhiltzaileek osatzen dute, guztiak Euskal Herrikoak eta boluntario gisa lanean ari direnak Greziako Chios uhartean. Hasieran, txalupen etorreretan, errefuxiatuak zuzenean itsasotik ateratzeaz arduratzen ziren. Gerora, etorrerak gutxiagotzean, baina errefuxiatu kanpamenduetako osasun arazoak handitzearekin, batik bat, osasunaren arretara bideratu dute euren lana. SMH taldeak sekulako lana egin du Chios uhartean, ia diru iturri gehienak Euskal Herrian jende eta talde anonimoek egin-dako donazioetatik abiatuz, beharrezko ekipamendu eta baliabideak lortu dituzte, eta euren jarduteko modua zuzena, eraginkorra eta betiere pertsona errefuxiatuen duintasuna bermatzekoa izan da.

Azken hilabeteotan, anbulantzia bat erosi zuten, horrekin kanpalekuetan gaixorik jartzeko zirenak edota haurdun zeudenak uharteko erietxera eramatea ahalbidetuz. Baina beste anbulantzia baten beharra zuten, batekin ez baitziren larrialdi guztietara iristen. Behar horren jakitun, Zumaiaiko Harrera Taldeak bilduta zituen 4.000 euro ematea erabaki du SMH elkarteari, anbulantzia eros dezaten. Esandakoa-gatik, anbulantzia otsailaren erdialderako Chios uhartean martxan izango dute. SMH taldeak, esker onez, *Zumaia* izena jarriko dio anbulantzia berriari. Hurrengo hilabeteo-



tan, beste osasun zentro bat martxan jartzeko asmoa dauka-te Chiosen, egonkorragoa, gaixo kronikoei arreta egokiagoa eman ahal izateko, eta oso larri dauden gaixoei errefuxia-tuen kanpalekuetatik ateratzeko pasaporte humanitarioak bideratzen saiatzen ari dira. Hori guztia azaltzeko, otsailaren 9an, Alondegian, SMHko kide den Javi Juliok berak egin-dako *Wait, just wait* dokumentala aurkeztuko du Alonde-gian, euren ahotsean entzun ahal izango dugu egiten duten lana, baita errefuxiatuen kanpalekuetan bizi den egoera ere.



Jon **TXONPE**  
*Dignity I* itsasontziko marinela

## “Exodo bat ari da gertatzen”

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET

Jon Agirrezabalaga, Txonpe, Mugarik Gabeko Sendagileak (MGS) erakundearen *Dignity I* ontzian lan egiten aritu da pasa den udazkenean, Mediterraneoan, Libiako kostaldetik ontzi kaxkarretan ateratzen ziren errefuxiatuen erreskate lanetan. Bi hilabete eta erdiko kanpainaren ondoren, Gabonen ostean, hilabetez, Zumaian egon da. Ontzira itzuli aurretik, han bizi izan duen errealitateaz hitz egin digu.

Mediterraneora joateko aukera parean pasa zitzaidan eta hartu egin nuen. Udazkena zen, *Luma* belaoztziaren denboraldia bukatuta zegoen eta tren hori aurretik pasa zitzaidan. Elkarriketa bat egin zidaten, itsasoan esperientziarik ea banuen galdetu zidaten eta ea ontziak eramateko titulaziorik banuen. Baldintza denak betetzen nituen. Ez naiz boluntario joan, lan egitera joan naiz. Itsasontzi batek itsasoko profesionalak behar ditu eta ontzia eramateko titulazioa banuen ere, marinela egin dut lan. Hura zen zegoen lanpostu bakarra. Erakundekoek eskertu dute hori. Esan zidaten marinela kargura *jaisteko* borondatea duten kapitain gutxi dagoela.

*Dignity I* izeneko atoiontzian egin dut kanpaina hau. 50 bat metroko luzera du eta zaharra da; 40 bat urte izango ditu. Bigarren eskukoa da. Erreskate lanetarako egokituta dago. Ospitale bat muntatu da, emakumeak beraien umeekin egoteko espazioa du, etab. Tripulazioa 18-20 lagunek osatu dugu, Espainiako estatuko jatorri askotakoak. Ontziaz arduratzen direnez gain, sendagileak eta erizainak daramatza.

Itsasontzia Maltan hartu nuen; hura da haren portu basea, Libiako kostaldetik hurbilen dagoen Europako azken muturra delako. MGSk pare bat lonja ditu alokatuta eta tresneria, zodiacak eta elikagaiak gordetzen ditu bertan. Libiako kostaldetik 20 edo 30 itsas miliatara egoten da ontzia, nazioarteko uretan. Behin sartu ginen Libiako uretan. Zamaontzi batek abisua pasa zigun: *gomona* bezala ezagutzen dugun txalupa bat larri zebilela itsaso txar eta haizeagatik. Itsasoa guretzat zakarra bazegoen, pentsa nola egongo zen haientzat. Kostatik ia 12 itsas miliatara hurreratu ginenean, zamaontzi bertatik esan ziguten patruila ontzi batek hartu zituela. Buelta eman eta nazioarteko uretara itzuli ginen.

“Nola esango diozu errefuxiatu bati, agian, kaiola batean bukatuko duela? Nola zapuztuko diozu amets hori?”



Baketsuaren fama du Mediterraneoak, baina ez da hala oso zakarra jartzen da oso denbora gutxian. Erabiltzen dituzten gomazko txalupa horiek, gomonek, ez dute inongo gogortasunik eta ezin diete olatuei aurre egin.

Jendea itsasotik ateratzea izan da marinela lana. Beraien txalupak ez ditugu ukitu ere egin. Lehenbizi hurreratu egiten gara eta jendea lasaitzen saiatu. Gure artean ingelesa, frantsesa eta arabiera dakizkien interprete bat egoten da. Jendea lasaitzen dugu, txalekoak banatu eta gero, pixkanaka, ontzira igotzen ditugu.

Ez da Libiako edo Siriako gerretatik ihesi dabilzan jendea bakarrik; esango nuke antzeko exodoa ari dela gertatzen. Sahara hegoaldekoak, Nigeriakoak, Eritreakoak, Ghanakoak... Sahara oinez zeharkatuta heldu dira Libiako kostaldera. Auskalo noiz aterako ziren beraien etxeetatik! Eta kostara heltzen direnean, beste pelikula bat hasten da beraientzat.

Urriaren bukaeran eta azaro osoan egon naiz han. Eguraldia aldatzean, negua hurreratzean, itsasora egin duten ontzi kopurua jaitsi egin da. Hala ere, erreskateak izan ditugu. Eguraldi ona badago, hego haizea badago, mafiek itsasora bultzatzen dituzte ontziak. Mafiek bada-kite gu hor gaudela eta txalupak itsasora bultzatzen dituzte jakinda erreskatatuko ditugula.

Aurten *Dignity I*ek, zuzenean, 18.000 pertsona atera ditu. Horiek dira guk zuzenean erreskatatu ditugunak. Horrek erakusten du zer dimentsioez ari garen hizketan. Eta horiek Libiatik ateratzen direnak besterik ez dira. Turkiatik beste bide bat dago.

Aurkitzen ditugunean, beldurtuta egoten dira. Itsasontzi handia ikusten dutenean, lehenbailehen sartu nahi izaten dute, denak presaka, korrika. Pixkanaka, banaka, ontzira igotzen ditugu. Eguraldi txarrarekin itsasoratu badira, zauriak izaten dituzte. Txalupan eramaten dituzten gasolina bi-doiak irauli egiten dira eta karga hori zodiac barruan geratzen da. Denak gasolinetan blai eginda egoten dira eta horrek aza-



*Libiako kostaldean itsasortik ateratako errefuxiatuak Siziliara eraman ditu atoiontziak.*

la erretzen die. Ontzira igotzeko eskua ematean azala eskue-tan geratzen zaizu.

Behin ontzian arropa kenduta, segituan, dutxa bat har-tzen dute. Arropa, mantak, toallak eta emakume musul-manei pareo zapi bana ematen diegu. Janari kit bat ere bai: galletak, polboroi antzeko bat eta egositako baba pote bat. Beraiek administratzen dute janaria.

MGSek errefuxiatu guztiak berdin tratatzen ditu; gata-zketan ez du bataren edo bestearen alde egiten, denei lagun-tzen saiatzen da. Alde horretatik, oso zorrotza da. Ontzira igotzen direnean galdetzen diegun gauza bakarra jatorria, adina eta sexua da. Beste informaziorik ez dugu, ezta nahi ere. Hala, portuan poliziak galderak egiten dizkigutenean, ezin diegu besterik esan.

Pixka bat beteta dagoenean bueltatzen da ontzia portura. Itsasotik ateratako pertsona horiek Siziliara eramaten ditugu, lan egiten dugun eremutik bi egunera. Ezin da erreskate bat dagoen bakoitzean portura itzuli. Itsasontzian egun bat egin dezakete. Behin Italiako patruila ontzi bat hurreratu zitzaigun, eta gurekin zeuden 200 lagun pasa genizkien. Berehala Libiara itzuli ginen.

Begiraden aldaketa da gehien gogoratzen dudana. Hasie-ran neka-neka eginda daude eta begirada urrutian dute, be-raien munduan daude. Ontzia martxan jartzen denean aldatu egiten zaie, gustura jartzen dira eta Malta ikusten dutenean, txantxak hasten dira. Ametsa betetzen ari dira eta infernua atzean uzten. European aurki dezaketen beste infernu horri buruz ez diegu ezer esaten. Nola esango diozu errefuxiatu bati, agian, kaiola batean bukatuko duela? Nola zapuztuko diozu amets hori?

Lotsagarria da gertatzen ari dena. Zerrikeria bat da. Lo-tsa, nazka, haserre eragiten dit. Itsasotik putzura bidaltzen dituzte. Nola daiteke gure agintariak halako erabakiak har-tzea? Leku guztietan hala dela? Ba, kaka zaharra!

Ontzia orain Tarragonan dago, Ebro ibaiko deltan, Sant Carles de la Rapitan. Mantentze lanetan ari gara orain. On-tziak lan asko eskatzen du eta beti prest egon behar du itsa-soratzeko. Ez dakigu jarraituko dugun edo ez, berriro Medi-terraneora aterako garen edo ez. Ateratzen bada, han izango naiz. Egoera gogorra da eta pentsatzen dut emozioak azalera-tzen direla. Baina, aldi berean, aberasgarria da pertsona horiei eskua eman eta ongi etorria ematea. ■

# Argi izpiak iluntasunean



TESTUA: GORKA ZABALETA

Merkatu libre eta irekia omen da argindarrarena baina, errealitatean, sistema iluna da oso, korapiloz josia, erabat ulergaitza. Herritarrari ezintasuna eta amorrua gailentzen zaizkio argindarraren prezioa neurri gabe igotzen den aldiro, eta ahalmenik gabe ikusten du bere burua negozioa kontrolatzen duten lauzpabost enpresa erraldoien aurrean. Baina hasi dira aukera berriak sortzen. Goiener kooperatiba da horietako bat. 5.700 bazkide ditu dagoeneko –tartean, 50 bat zumaiar–. Santiago Eribe de Otxoa gerenteak azaldu digu Goiener zer den.

Ordiziako egoitzan jo eta su ari dira lanean azken asteotan; bazkide egiteko eskaerak laukoiztu egin dira argindarraren prezioa igotzarekin bat. “Lan handia ari gara egiten herriz herri Goiener zer den esplikatzeko, eta jendeak ezagutzen gaitu. Baina, askotan, kosta egiten da betiko enpresa hornitzailean baja eman eta horrelako proiektu berritzaile batean sartzea, oinarrietan erabat ados egon arren. Beldur pixka bat ematen du, argindarra oso garrantzitsua delako gure eguneroko bizitzan. Baina fakturan halako igoerak gertatzen direnean, jendeak *nahikoa da!* esan eta Goienerrekin akordatzeko”, hasi da esplikatzeko Eribe de Otxoa. Normalean egunean lauzpabost lagunek deitzen dute Goienerreko bazkide egiteko; azken asteotan, berriz, 20-25 izan dira. Zerbait aldatzen hasi da.

### Lehenik eta behin, zer da Goiener?

Goiener irabazi asmorik gabeko kooperatiba bat da, herritarrez osatua. Gaur egun, energia berriztagarria erosi eta saltzen die bere bazkide-bezeroei. Baina helburua beti izan da guk geuk sortzea energia berriztagarria gure bazkideentzat. Hori oraindik ez da posible, baina urratsak ari gara ematen.

### Orduan, zuek nondik lortzen duzue bazkideen saltzen diezuen energia berriztagarria?

Energia merkatu orokorrean erosten dugu, baina ekoizleek emandako agiriarekin ziurtatzen dugu guk salerositakoa berriztagarria dela erabat.

### Eta zuek, Goienerrek, eskaintzen duen argindarra Iberdrolarena baino merkeago al da?

Argindarra ez da merkeagoa, denok merkatu berean erosten dugulako, prezio berean. Aldea da gurea % 100 berriztagarria dela. Baina badaude arrazoi sakonagoak gurea bezalako ekimenak bultzatzeko.

“Energiaren gaiarekin kezka zeukan herritar talde batek sortu zuen kooperatiba hau, indarrean dagoen sistema ez zitzaielako egokia iruditzen”



### Esate baterako?

Adibidez, enpresaren eredia bera. Energiaren gaiarekin kezka zeukan herritar talde batek sortu zuen kooperatiba hau, indarrean dagoen sistema ez zitzaielako egokia iruditzen. 2012an sortu genuenean 33 bazkide ginen, tartean abokatuak, ingeniariak, ingurumen teknikariak, ekonomialariak... Gaur egun ia 5.700 gara, eta % 92 herritar soilak. Bazkideen artean badauzkagu hainbat udal, sindikatu gehienak eta enpresak ere hasi dira sartzen. Baina denek dute boto bakarra erabakiak hartzeko garaian. Erabaki garrantzitsuak demokratikoki hartzen dira. Ez dago administrazio kontseilu bat soldata ikaragarria kobratzen.

### Baina Goienerreko bezero izateko nahitaez izan behar al da bazkide?

Bai, aurrena bazkide egin beharra dago, kooperatibista izan behar duzu kontsumitzaile baino lehen. Gauzak egiteko beste modu bat dagoela sinesten dugu. Kontsumitzaile huts baino gehiago izan zaitezke, erabakietan har dezakezu parte.



## Energia berriztagarriak saltzen dituzue, baina sortu oraindik ez.

Gure erabakia da soilik energia berriztagarriak saltzea. Ingu-  
rumenaren aldeko apustua da. Garbi daukagu gaur egungo  
sistemak ondorio nabarmenak dauzkala ingurumenean eta  
hori aldatzeko apustua egin dugu. Egia da, gaur egun, bes-  
te ekoizle batzuk sortutakoa salerosi baino ez dugula egiten.  
Baina bidea ari gara egiten geure energia propioa sortzen has-  
teko.

### Nola lortuko duzue hori?

Gure ibaietan badaude azpiegitura hi-  
droelektriko txiki asko, batzuk utzita  
daudenak eta beste batzuk larri irauten  
ari direnak. Aukera batzuk ari gara az-  
tertzen, eta lehen urratsak hortik etor-  
daitezke. Zaila izango da gure bazki-  
deen eskari guztia gure energia pro-  
pioarekin asetzera, baina hasierako hel-  
burua hori zen eta ez diogu uko egin.  
Atzeratu egin da, araudiak ez duelako  
baterre laguntzen.

### Zer oztopo aurkitu dituzue?

Espainiako Gobernuak araudia erabat  
aldatu zuen 2012an, justu kooperatiba  
sortu zen unean. PSOEn gobernua  
diru laguntza handiak eman zituen  
berriztagarriak bultzatzeko, neurrigabe  
agian; horri erantzunez, PPren gober-  
nu berriak kontrako norabidea hartu  
zuen, berriztagarriei galga erabatekoa jarritz. Kooperatibaren  
helburua zen energia sortzea, baina egoera berriak ez zuen la-  
guntzen. Erabaki genuen salmentatik hastera, ekimena bertan  
behera gelditu ez zedin.

**Goiener horrelako kooperatiba bakarra da Hegoaldean,  
baina eredia ez da zuek asmatua...**

Ez, historia luzea dute energia berriztagarrien kooperatibek.  
1970eko hamarkadan sortu ziren lehenak, Europa iparral-  
dean, petrolioaren krisiarekin. Katalunian ere badago koope-  
ratiba bat indar handia duena —40.000 tik gora bazkide dira—,  
eta Espainian zehar ere sortu dira gehiago. Ipar Euskal He-  
rriari lener sortu berri da. Beste kooperatibekin elkarlanean  
ari gara, interes komunak dauzkagulako, baina erabaki dugu  
Hegoaldea izango dela gure lan esparrua. Gertuko enpresa  
bat izan nahi dugu, tokiko ekonomia bultzatzeko duena.

“2012an sortu  
genuenean 33  
bazkide ginen eta  
gaur egun ia 5.700  
gara; bazkideen  
artean badauzkagu  
hainbat udal,  
sindikatu gehienak  
eta enpresak ere hasi  
dira sartzen”

### Gaur egun zer egitura dauka Goiene- rrek?

Gaur egun 14 langile gara. Bulegoak  
dauzkagu Ordizian, Gasteizen eta Bil-  
bon, eta gure asmoa da Iruñean eta  
Donostian ere bulego bana zabaltzea.  
Guretzat erosoago litzateke denak  
egoitza bakarrean biltzea, baina lehen  
aipatutako tokikotasuna bultzatu nahi  
dugu. Harremanak askoz gertukoagoak  
izatea nahi dugu. Zuk enpresa handi  
horietako batera deitzen duzunean te-  
lefonoaren beste aldekoa ez dakizu non  
dagoen, agian Madrilan, agian Kolon-  
bian... Edo agian da makina bat. Guk  
kontrako bidea hartu dugu. Bizkaitar  
batek deitzen duenean, telefonoaren  
beste aldean bizkaieraz egingo dion  
norbaitek aurkitzea nahi dugu.

### Baina langileez gain boluntarioak ere badauzkazue.

Goiener zer den gizarteratzen lan handia egiten dute. Baz-  
kideen artean batzuek gogoia dute proiektuan aktiboki parte  
hartzeko eta indar hori bideratzeko Goiener Elkarteak sortu  
genuen. Batzuk herriz herri dabilta hitzaldiak ematean, ar-  
gindarraren faktura espikatzen...





**Gure-Txokoa**  
taberna



Upela plaza, 4  
20750 Zumaia  
Tel.: 943 86 09 70

**Harvest**  
English School

...eta udaran ingalaterrara ingelesa praktikatzera

[www.academiaharvest.com](http://www.academiaharvest.com)

San Jose, 11 bis tel. 943 143 334

**ilarzi**



Alai auzategia, 2  
Tel. 943 24 50 20

**INPERNUPE**  
**ELKARTEA**



Erribera kalea 16. Tel. 943 861 523

**Iriondo optika**



Kantauri plaza, 8. Zumaia. tel.: 943 86 04 86  
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943 85 19 84

**IRUDI OTS**



Ikuskizun orofarako solnu  
eta argiztapen alokairua  
Hots eta irudigintza aretoa  
tel. 943 63 16 32 [irudiots@irudiots.com](mailto:irudiots@irudiots.com)

**IRUITZ**



Ileapaindegia Mistoa

San Telmo, 12 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 860 760

**TXALAPARTA**  
OPARIK



Angelos Soraru, 2  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
tel. 943 143 089  
fax: 943 430 637

**Talaira**  
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370

**ORRAZTEGI**  
ZUMAI



943 862 083

**JUARISTI**  
jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran  
Eguneko menua  
Jangela klimatizatua

Basoñi auzategia, 10 tel. 943 05 05 77


**JUSTA**  
taberna

Erribera kalea, 20 [www.justataberna.com](http://www.justataberna.com)  
tel. 943 861 405 [justa@justataberna.com](mailto:justa@justataberna.com)

**K&BI** Patxita Etazarraketa, 15  
943 143 427



**Kaithermik S.L.**



**Arotzeria metalikoa**  
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,  
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943860320

**kalari**



Upela plaza, 8  
tel. 943 862 517

**DOIA**



**kuttun**  
lentzeria



erribera kalea tel. 943117936

# “Prezioekin espekulatzeko aukera dute enpresa handiek”

Argindarraren sistemak nola funtzionatzen duen ulertzeko ikastaroa trinko beharko genuke, baina argibide batzuk, behintzat, eman dizkigu Eribe de Otxoak.

Argindarraren sisteman lau urrats nagusi daude: energiaren ekoizpena, garraiatzeko azpiegitura, energiaren banatzaileak eta saltzaileak. Erdiko biak ez daude liberalizatuta: garraioa Red Eléctrica Española kontrolatzen du, eta bere lana da ekoizleak tentsio altuko sarearekin lotzea; eta banatzaileak arduratzen dira argindarra kontsumitzailearengana helarazteaz, tentsio baxuko sarearen bidez. Hegoaldean, adibidez, Iberdrola Distribución enpresaren esku dago ia gehiena. Bi kasuetan jarduera araututa dago eta ezin dute prezioa aldatu. Baina ekoizpena eta salmenta liberalizatuta daude 1997tik. Horrek esan nahi du baldintzak betetzen dituen edonork sortu edota saldu dezakeela argindarra. “Berez, 300dik gora enpresa daude sektorean argindarra saltzen dutenak, baina egia da bost handienek kontrolatzen dutela merkatuaren zati handiena: Iberdrola, Endesa, Fenosa, Viesgo eta Hidrocantabricoren artean merkatuaren %70 inguru daukate”, azaldu du Eribe de Otxoak.

## Nola funtzionatzen du argindarraren merkatuak?

Pentsa dezagun tomateak salerosten ditugula. Esan dugu tomateen ekoizpena eta salmenta daudela liberalizatuta. Orduan, tomateak saltzen ditugunoi egunero galdetzen digute zenbat tomate beharko ditugun. Guztion eskaria jasotzen denean ekoizleei esaten zaie hainbeste tomate behar dira. Ariketa hau orduero egiten da. Ekoizle bakoitzak esan behar du zenbat tomate eskaintzen dituen eta zer prezioan. Eskaintza guztiak jasotzen dira eta eskariari erantzuten zaio merkeenetik hasita. Adibidez: 50 tomate behar dira. Horietatik nuklearrak diote 20 ekoizteko prest daudela. Nuklearren kasuan, teknologiarene ezaugarriengatik, beti martxan egon behar dute, ezin dira gelditu edo martxan jarri eskariaren arabera, ez lirateke bideragarri. Orduan, nuklearren tomateak nahitaez kontsumitu behar direnez, merkatuan zero eurotan eskaintzen dituzte. Demagun haize errotek beste 15 tomate eskaintzen dituztela, hauek 15 euroan; hidroelektrikoek hamar tomate 20 euroan; eta zentral termikoek beste hamar tomate 60 euroan. Guztira 55 tomate eskaintzen dituzte, baina 50 baino ez ditugu behar. Zer egiten da? Termikoek eskainitako hamar horietatik bost hartuko dira eta beste bostak baztertu. Eta azken tomate horrek markatzen du salmenta osoaren prezioa. Hau da, 50 tomateak ordainduko dira garestienaren prezioan, 60 euroan.

**Beraz, energia nuklearra, berriztagarria edo termikoa izan, prezio berberean salerosten da?**

Hala da. Sistema marjinalista deitzen zaio horri.

**Baina teknologia guztiek ez dute ekoizpen kostu berbera. Ez da berdin kostatzen argindarra sortzea zentral nuklear batetik edo haize-errota batekin...**

Hori da sistema honek daukan arazoetako bat, ez dakigula benetan zenbat kostatzen den argindarra sortzea teknologia bakoitzarekin. Hor iluntasun handia dago, enpresa handiek ez dute informazio hori ematen. Baina datu deigarriak azaleratu dira. Aragoiko ur jauziekin gertatu da. Enpresa batzuek ur jauzi horiek esplotazioa lortu zuten duela zenbait hamarkada. Epea amaitu denean, azpiegitura horiek Aragoiko Gobernuaren esku gelditu dira, eta ohartu dira argindarra zazpi euroan salduta

kostu guztiak estaltzen dituztela. Hortik adibidean aipatutako 60 euroetara dena da irabazia. Francoren garaian egindako azpiegitura haiek guztiak aspaldi daude amortizatuta, asko oraindik enpresa handien esku daude, eta ez dakigu benetan zer etekin ateratzen dioten. Informazio hori falta da.

**Baina badago beste arazo bat: enpresa berberak daude katearen bi muturretan, ekoizten eta saltzen. Aukera**

**dute prezioan eragiteko.**

Zalantza hori hor dago, bai. Zaila da hori demostratzea, baina 2013an lortu zen Iberdrolaren kasuan. Ur jauzi batzuk ez zituen martxan jarri, prezioa jaitsi ez zedin. Tomateen adibidera itzulita, eskaria asetzeko hiru ale falta badira, eta zure esku badauzkazu hainbat teknologia, batzuk merkeagoak beste batzuk garestiagoak, ba, aukera daukazu horrekin jokatzeko eta azken tomate hori garestienarekin ekoiztu eta prezio altuena markatzeko. Espekulatzeko aukera dute handi horiek, beraien esku daudelako nuklearrak, eolikoa, gasa, hidraulikoa... Teorian merkatu librearen dena errealitatean ez da hala. Horregatik guk burujabetzari buruz hitz egiten dugu, zeuk sortzen baduzu behar duzun energia, orduan zeuk ezarriko diozu prezioa zeure buruari.

**Hain ulergaitza egiten zaigun fakturan badago zati handi bat finkoa dena. Gure hileroko kontsumoa dago, zergak eta hainbat kontu jasotzen dituen zati finkoa. Hor zer ordaintzen dugu?**

Zati finko horretan gauza asko ordaintzen dira, eta ez da erraza ulertzen. Hor daude moratoria nuklearra, berriztagarrien dirulaguntzak, ikatzaren diru laguntzak, Kanariar Uharteetako gain kostua... Adibidez, sistemaren erdiko bi urratsetako kostuak –garraio azpiegitura eta banaketa– hor daude sartuta. Potentzia eta energia ordainsariak dira, eta horiek Espainiako Gobernuak ezartzen ditu. Baina egia da negozioaren zati hori kudeatzen duten enpresek presio egiten dutela ordainsari horiek ahalik eta altuenak izan daitezen. Adibidez, potentziaren kasuan, 2013ko apirilean 21 euroan zegoen eta gaur egun 42 euroan dago. Bikoiztu egin da. Eta sarrera horiek enpresen eta Ministerioaren artean banatzen dituzte.

Leire **ARANO**, Alfonso **GARCIA** eta Josu **URANGA**  
Goienerreko bazkide eta bezeroak

## “Gauzak aldatzen hasteko modu bat da”



Ezkerretik, Josu Uranga, Alfonso Garcia eta Leire Arano

### Zergatik erabaki zenuten Goienerrera aldatzea?

Leire Arano: Ni 2014an egin nintzen bazkide. Hasieran kanpaina handi samarra egin zuten, baina urratsa emateko konfiantza Alfonsok [Garcia] transmititu zidala esango nuke. Kooperatibista bezala ez dut parte hartzen aktiboki kontsumitzaile hutsa naiz. Zergatik Goienerrera pasa? Kontzientziagatik, energia berriztagarriak eskatzeko eta bultzatzeko modu bat zela pentsatu nuelako. Hasieran, kezka pixka bat baneukan, kooperatibista izateak zer eskatuko zidan, denbora eskaini behar ote nion. Aukera hori badago, nahi izanez gero, baina ez da nahitaezkoa.

Alfonso Garcia: Ni hasieratik nago, 85 zenbakidun bazkidea naiz. Goienerreko bilera batera joan nintzen, ez nagoelako ados argindarraren sistemarekin. Ikusi nuen jendea behar zutela laguntzeko, lan ildo asko zeudelako zabalik. Bakoi-tzak bere arloa aukeratu zuen. Ni kooperatibista naiz eta mundu horrek erakartzen nau. Goien-ner kooperatiba denez, tramite asko bide horretatik egiten dira eta orduan neuk ikusi nuen hor lagun nezakeela, eta horretaz arduratzen naiz, Goien-erreko idazkaria naiz, boluntarioa. Boluntario talde bat dago, lan asko egiten laguntzen dugunak. Goiener erreibindikatzailerak da, baina, aldi berean oso zorrotza legea betetzeko orduan. Argindarraren sektore hau oso konplexua eta zaila da eta kontu handiz egin behar dira gauzak. Jende

asko ari gara inplikatzeko eta ahalik eta zorrotzen jokatzeko saiatzen gara.

Josu Uranga: Lehen erreferentziak Alfonsoren bidez izan nituen. Gero, aurkezpen bat egin zen Zumaian. Nik bi motibazio garbi izan nituen. Lehena, Iberdrola bistatik kentzea. Niretzat nahikoa zen faktura berbera beste izen batekin jasotzea. Eta Iberdrola bezala, BBVA edo betiko beste enpresa handi hauetako edozein. Baina gero ikusi nuen proiektuak berak ezaugarri oso erakargarriak dituela, kooperatiba izatea, energia berriztagarriak bultzatzea, herrikoa izatea, energia ekoizle izateko helburua... Neuk ere kontsumitzaile bezala hartzen dut parte, ez dut bestelako inplikaziorik.

### Ingurukoek nola ikusten dute aukera hau?

Leire: Hasieran bazkide egin behar da, badago urrats aktibo bat, eskatzen du tramitazio bat egitea. Merkeago balitz jende gehiago apuntatuko litzateke. Batzuek galdetzen dute merkeago ote den, eta ezezkoa erantzutean “orduan zertarako” esaten dute. Beste enpresa erraldoi horiek ez direla hondoratuko pentsatzen du jendeak, eta orduan ez aldatzea erabakitzen dute. Zertarako arriskatu.

Josu: Baina tramitea oso erraza da, segituan egin daiteke ordenagailuz [hamar minutuan egin daitekeela probatu dugu]. Jendeak sekulakoak esaten ditu Iberdrolakoen kontra,

“Jendeak sekulakoak esaten ditu Iberdrolaren kontra, baina gero aukera bat sortzen da eta ez dugu urratsa ematen”





baina gero aukera bat sortzen da eta ez dugu urratsa egiten. Zerbait egin beharko da, ba!

Leire: Azken aldian, argindarraren prezioaren igoerarekin, jende gehiago ari da bazkide egiten. Hitzaldi asko ari dira egiten herriz herri, faktura esplikatzeke, adibidez, eta ekitaldi horiekin jendeak errazago ematen du urratsa.

Alfonso: Goienerrek ez du soilik argindarraren salmenta eskaintzen. Bere helburuetako bat da argindarraren sistema eraldatzea, hor eragitea, behintzat. Eta hor sartzen dira militantzia, boluntarioak... Enpresa bezala, gure bereizgarria da saltzen dugun energia guztia berriztagarria dela eta jarduera guztia izan dadila ahalik eta lokalena. Lanpostuak ere hemen sortzen ditu.

### **Baina energia sortzeko pausoa falta da oraindik...**

Alfonso: Horretan ari gara. Hiruzpalau lan ildo ari gara lantzen Goienerren. Bat, salmentarena, eta hau izan da azkarren garatu dena. Bi, boluntarioen antolaketa, eta horretarako elkarte bat daukagu. Eta hiru, energiaren sormena. Horretan ere ari gara lanean, baina bere erritmoa dauka. Bideragarri izan nahi dugu.

“Energiak oinarritzko ondasuna izan behar du. Oso ohituta gaude asko ordaintzera eta luxuzko zerbait da gaur egun”

### **Nola konbentzituko zenukete zalantzan dagoena?**

Josu: Oso sinplea dela tramitazioa. Alde soziala bilatzen ari dena, enteria dadila zer den Goiener eta zer aukera eskaintzen dituen parte hartzeko. Eta hori bilatzen ez duenak irabaziko duena izango da Iberdrola bistatik kentzea, eta hori ez da gutxi. Nik eduki dudana erlazioa askoz gertukoagoa da. Nik konparatuko nuke Urbilen edo auzoko dendan erostearekin. Gertuko harremanean dago alde.

Alfonso: Goienerren erosten baduzu, energia berriztagarriak ari zara bultzatzen eta planetaren egoera hobetzeren alde ari zara. Argindarren inguruan dagoen iluntasunari aurre egiten lagunduko duzu, gu oso didaktikoak garelako eta saiatzen garelako gauzak nola diren esplikatzen.

Leire: Energiak oinarritzko ondasuna izan behar du. Oso ohituta gaude asko ordaintzera eta luxuzko zerbait da gaur egun. Ura ere bide horretatik doala dirudi. Momentu honetan Goienerrek merkatu nagusian erosten

du argindarra besteen prezio berberean, baina badu energia berriztagarria gertu sortzeko helburua. Sistemari ezetz esan eta gauzak aldatzen hasteko modu bat da, eta ez du batere lanik. Nik ez dut sekula inora deitzeko premiarik izan. Eta ez naiz sekula argindarrik gabe gelditu. ■

# LABARRA TABERNA ZUMAIA est.2016

Ondartxo plaza 5. Tel. 943 860 484



## MENDI - ONDO C.B. Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569



## MARGARI Jruta-denda

Tel.: 943 86 19 20  
Harategi Kalea 17 - ZUMAIA

CROISSANTERIA



pizzak  
hanburgesak  
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46

## "Muagi"

errehabilitazioa  
kirol medikuntza  
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea tel. 943 861 691

## Nikol taberna

Amiako plaza 943861516



## NOIA S.L. TAILERRAK ETA KARROZERIAK

Hego kalea, 83 (Estazioan)  
20750 - Zumaia  
Tel.: 943 861 363  
zumaia@carroceriasnoia.com

Etengabeko garabi zerbitzua

Itziar induristegia, C  
20820 - Itziar-Deba  
Tel.: 943 606 291  
noia@carroceriasnoia.com

836 887 812 (Zumaia)  
809 834 438 (Itziar-Deba)

www.carroceriasnoia.com



Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa  
Parketa jartzea

Estazioako kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149



construcciones y reformas, S.L.  
647 040 156  
686 911 257  
oliden@olidenreformas.com  
Oliden arkitek-tura  
678 875 652  
943 143 093  
lu@olidenreformas.com

ZARAUZ - ZUMAIA  
www.olidenreformas.com

Fabrika  
Telatutak  
Etxeak  
(Sukak, bekoak, balizak)  
Industria mantentzeak  
Mota guztietako egiteak  
Etxeak berrikuntza (ITE)  
Zerbitzu energetikoak  
Fabrika diseinua eta aholkularitza  
Etxeak berrikuntza diseinua  
Mota guztietako proiektuak



OSKARBI  
KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arranatz, 1 - Tel. 943 143 112  
oskarbi@kirolak.euskar.net



OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Joxe Mari Korta Induristegia, A1 - 4. pat. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
Tel. 943 86 50 68 • Faxa 943 86 13 45  
www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com

## Ostolaza altzariak

Tel/Fax: 943 86 13 25  
Julio Beobide Biltokia, 1 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com



943 247 011  
www.laprimaverapizzeria.com

## TXIMISTA garagardotegia

Ogitartekook  
Plater konbinatuak  
Txerri-ukondak (Kodilloak)  
Saltxitzak, oilaskak...  
Garagardak aukeran

Ondartxo plaza, 4 beheko - Tel. 943 573 905

## TTAKUN TABERNA



Izustarri, 3  
tel. 943 865 289



PARABOTIKA  
BELARDENDA  
Aitziber Etxeberria Garro  
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943 860 992 www.ukendu.com



Eneko **CARRETERO** | ESKALATZAILEA

# Paretak igotzen hazia

TESTUA: JOSE MANUEL CASTILLO  
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA

Eneko Carreterok 15 urte baino ez ditu, seirekin hasi zen eskalatzen eta jada mundu osoan zehar izan da eskalatzen. Azken bidaia Txinara egin du, Munduko Txapelketara.

ERRETRATUA



Gazte ugari ikus daitezke Zumaian arratsaldero kiroldegian eskubaloian edota futboleant entrenatzen. Ibaira gerturatu eta berdin, arraunlari zein piraguistak ikusiko ditugu euren kirolean lehiatzeko prestatzen. Badira, ordea, ohiko aukera horietatik aldendu eta euren kabuz beste kirol batean murgiltzen diren gazteak ere. Hori da Eneko Carretero 15 urteko gazte zumaiaarraren kasua, sei urte zituenetik paretak eskalatzen dabil, nahiz eta Zumaian, agian, ez den hain kirol ezaguna.

Paolerako bidean, Juan Belmonte Kalean, lokal batean dago rokodromoa. Bertan bildu gara Carreterorekin, nahiz eta jada urtebete daraman bertan entrenatu gabe, hau txiki geratu eta Azpeitiko rokodromo handiago batera aldatu behar izan baitzen entrenatzera. Bertan, eskalazaille gazteak bere lehen pausoak gogoratu ditu: “Sei urterekin hasi nintzen eskaladan, gurasoak betidanik ikusi izan nituelako eskalatzen. Hasieran, jolas hutsa baino ez zen niretzat, naturan paretak igotzen gozatu egiten nuen”.

### Lehiarako grina

Nahiz eta eskalada jolas hutsa baino ez izan Carreterorentzat, aipatu behar da, baita ere, sei urtetatik ari dela lehiatzen txapelketetan. Adin horrekin izan zen bere lehen Euskadiko Txapelketan, nahiz eta hasieran, behintzat, lortzen zituen emaitzak ez izan egungoak bezain onak. “Eskalatzen hasi eta gutxira hasi nintzen txapelketetara aurkezten, betidanik izan dudalako lehiatzeko grina. Baina, hasieran lortzen nituen emaitzak oso eskasak ziren; adibidez, nire lehen Euskadiko Txapelketan, azkena geratu nintzen, ni baino zaharragoak zirenen aurka lehiatzen nintzelako”, azaldu du eskalazailleak.

Horrela, urte batzuez, Enekoarentzat gehiago izan zen jolasa lehiaketa baino. Hori, ordea, hamaika urte betetzean aldatu zen, txapelketa batzuetan lortzen zituen emaitza onak ikusirik, eskalada serio hartzea erabaki baitzuen gazteak. Jauzi horrek laster eman zituen emaitzak, orain hiru urte, Euskadiko Txapelketan “soka” modalitatea deritzon frogan, hau da, rokodromoan denbora zehatz batean ahalik eta goren igotzen, finalera igaro baitzen lehen aldiz Carretero.

Eskaladan aditu ez denak jakin dezan, Enekok azaldu du eskaladan txapelketak soilik rokodromoetan izaten direla. Berak, nahiz eta naturan eskalatzeari ez dion uko egin, rokodromoan gehiago ibiltzen da. Bertan, hiru modalitate ezberdinetan lehiatzen da: lehen aipatutako “soka” modalitatean, *boulder* edota trebetasun froga bezala defini genezaken lehiaketa eta *speed* edo abiadura proban. Azken horretan, ordea, ez du esperientzia handirik, Estatu espainoleko txapelketetan ez baitago froga horretan lehiatzerik eta nazioarteko probetan baino ez du izan modalitate horretan aritzeko aukera.



### Nazioartera jauzi

Orain urtebete, Zumaiaoko rokodromoa utzi behar izan zuen. Izan ere, hemengo azpiegiturak, jada egungo txapelketetan lehiatzen diren rokodromoekin alderatuta, oso zaharkituak baitaude. Horregatik, Azpeitiko Sokaitz eskalada taldean izena eman eta bertako rokodromoan entrenatzen hasi zen, horrek bere mailako eskalazailleentzat baliabide egokiagoak eskaintzen baititu. Bestalde, entrenamenduetan ere jauzi nabarmena egin zuen, amarekin entrenamenduak planifikatzen

hasi baitzen. “Orain dela urtebete eskas arte neure kabuz entrenatzen nintzen, baina konturatu nintzen horrela, alde batetik, lesionatzeko aukera handiak nituela, eta, bestetik, maila handitzea jada oso zaila zela”, azaldu du Carreterok aldaketa horiek nabarmenduz.

Esther Cruz eta David Carretero dira eskalazaille gaztearen gurasoak, biak ala biak nazioartean eskaladan lehiatzen ibilitakoak. Hala ere, gurasoak eskaladan aritu izanagatik, Carreterok nabarmendu nahi izan du beraiegandik inolako presiorik ez duela jaso: “Ni

izan nintzen neure kabuz erabaki nuena eskaladan aritu nahi nuela, eta ni izan nintzen orain dela urtebete amari propio eskatu niona ea berekin entrenatzeko aukera izango nuen”.

Bi jauzi kualitatibo horiek eragina izan dute gaztearengan, 2016an 16 urtez azpikoen Espainiako Txapelketa irabazi eta nazioarteko hainbat txapelketatan lehiatzen izan baita, Txinako Guangzhou hirian izan zen Munduko Txapelketan barne. Europako Kopan nahiko ibilbide txukuna egin du azken urtean Carreterok. Portugalgo Soure herrian egin zen kopako lehen proba “errebotez” joan zela aitortu du, Espainiako selekzioiko beste eskalazaille bat lesionatu zelako. Han, ordea, finalera igarotzea lortu eta zortzigarren izan zen bukaerako sailkapenean. Ondoren, Austria eta Poloniako probetan izan zen; azken horretan berriz ere finalera igaro eta zortzigarren postua lortu zuen. Azkenik, uztailan, Frantziako Alpeetako Argentiére herrian egin zen kopako azken proban, finalera

igarro eta bosgarren izatea lortu zuen. Emaiza horiek ikusirik, Espainiako hautatzaileak Txinako Munduko Txapelketarako deitu zion Carreterori. Sorpresa ikaragarria izan zela aitortu du gazteak: “Selekzionatzaileak esana zidan Europako Kopako probetan maila ona ematen banuen mundialean izango nintzela, baina deitu zidan arte ezin nuen sinetsi, Portugalgo probara beste kide baten lesioaren erruz joan nintzelako”.

Txinan, Guangzhou hirian, azaroaren 7tik 13ra mundu guztiko 880 eskalatzaile batu ziren. Junior mailako Munduko Txapelketan, *boulder*, soka eta *speed* probetan aritu zen Carretero. Nabarmenezkoa da *boulder* modalitatean lortu zuen emaitza, hamahirugarren izatea lortu baitzuen. Nazioarteko txapelketa horiek guztiak ondo baloratu ditu: “Orain urte batzuk niretzat jolasa baino ez zen eskalada; orain, ordea, mundu guztira ari naiz bidaiaitzen honi esker, eta jende ugari ezagutzen”.

### Eskalatzailearen bizimodua

Lehenik eta behin, argi utzi nahi izan du Carreterok, bidaia luzeak alde batera utzita, bere bizimodua bere adineko gainerako gazteen nahiko antzekoa dela. “Futbolearen aritzen diren nire adineko gainerako lagunen antzeko bizimodua daramat, nahiz eta, agian, egia izan nire kirolak esfortzu fisiko handiagoa eskatzen duela”, argitu du. Hiru eta bost egun artean entrenatzen da astero.

Elikadura zein malgutasuna gehiago zaindu beharko lituzkeela ere aitortzen du. Elikadurari dagokionez, ama begetarianoa denez, azaldu du etxean osasuntsu jateko ohitura dutela eta alderdi horretan gehiegi ez duela kezkatu beharrik, baina flexibilitatea gehiago lantzea jotzen du erronka nagusizat: “Gure aitak, lehen, goizero ordubete eskaintzen zion luzaketak egiteari; nik ez diot inoiz garrantzi handiegirik eman, baina konturatu naiz lesioak saihesteko oso garrantzitsua dela”. Lesiorik larriena orain dela bi urte pairatu zuen, eskuko behatz batetik operatu behar izan zuten, eta, jarraian, hiru hilabeteko errehabilitazioa behar izan zuen berriz ere eskaladara bueltatzeko.

Hain zuzen ere, lesioak aipatzen ditu eskaladaren alderdi ankerrena bezala Carreterok. Eskalatzen egiten diren lesioak batzuk gehienetan hiru hilabeteko errehabilitazio epea behar izaten baitute, eskalatzailearen esanetan. Bestalde, kanpoan naturarekin kontaktuan, pareta naturalak eskalatu ahal izatea nabarmendu du gazteak kirol honen alderdi positibo gisa. Egindako lagunak ere aipatzen ditu, baina horiek kirol guztietan egiten direnez, naturarekin harreman zuzenean egotea nabarmendu du bereziki.

Etorkizuneri begira, ahalik eta denbora gehien eskalatzen jarraitzea du helburu Enekok. Hala ere, amets handiago bat ere badu buruan. Izan ere, aurtan eman zen jakitera eskalada 2020ko Tokioko Joko Olinpikoetan lehen aldiz kirol olinpikoa izango dela eta bertan lehiatzea du amets Carreterok. Hiru urte baino gehiago ditu oraindik aurretik, eta zail ikusten badu ere, grina eta irrika ez zaizkio falta aurtan piraguan Iñigo Peña zumaia iraki duen bide olinpikoari jarraipena emateko.



### Gurasoengandik datorkion ofizioa

Esther Cruz eta David Carretero bikotearen semea da Eneko Carretero. Ama Murtziakoa du; aita, aldiz, Lasarte Oriakoa. Bi gurasoak ere eskalatzaileak dira, eta semea bezala, beraiek ere nazioarte mailan lehiatutakoak dira. Gurasoen ibilbidea azaldu du Enekok labur-labur:

Esther Cruz, egun semearen entrenatzaile dena, hamasei urterekin hasi zen eskalatzen ahizpak bultzatuta. Laster hasi zen txapelketetan emaitza onak lortzen, eta nazioartera egin zuen jauzi. München jokatu zen Munduko Txapelketan berderatzigarren sailkatu zela ere nabarmendu du Enekok. Semea izan ondoren ere jarraitu zuen eskaladan Cruzek. Ondoren, orain dela hiru bat urte, hainbat lesioren ondorioz, eskalatzeari utzi behar izan zion. Egun, semearen entrenatzailea da, eta urte luzez kirolean bildutako esperientzia semearekin partekatzen saiatzen da.

David Carretero, berriz, bere bikotea baino gazteago hasi zen eskaladan. Oso modu bitxian hasi zela gogoratu du semeak. Izan ere, hamabi urterekin Donostiako Paseo Berriko haitzetara joaten baitzen eskalatza. Hamazazpi urte zituela, junior mailan munduko txapeldun izatea lortu zuen, eta nazioarte mailan lehiatzen jarraitu zuen semea jaio arte. Eneko jaiotakoan, urte batzuez eskalada utzi zuen eta surfean ere hasi zen. Hala ere, orain lau urte berriz ere eskaladarekin buru belarri jarri eta paretak igotzen gozatzen du egun Enekoren aitak. ■

# OTSAILA-MARTXOA

## ERAKUSKETAK

### Oxford aretoan

#### Urtarrilak 27-otsailak 12

Edgar Rodas, *Mi alma grita así* (argazkiak)

#### Otsailak 14-26

Eskolabideak logo lehiaketa

#### Otsailak 16-28

Inauterietako kartel lehiaketa

#### Martxoak 3-19

Fatiha Hajji Baba

#### Martxoak 21 - apirilak 2

Darahli, 10 urte

## DEIALDIAK

**Otsailak 10-12** Errefuxiatuak: Atzo gu, zumaiaarrok; gaur siriarrak; bihar?

**Otsailak 25-27** Inauteriak

**Martxoak 24-25** Zumaiko dendarien Merke Azoka

## OTSAILA

### 10, ostirala

19:30 Forondan Gune elkartearen meditazio saioa

### 11, larunbata

20:00 Torreberri Dardara urteurren jaialdia: Grises, Kerman, Mayo Garlic, Los Brown

### 15, asteazkena

18:30 Oxford aretoan hitzaldia: Esti Amorrrortu eta Ane Ortega (Euskara, bestela ez gara zikloa)

### 16, osteguna

22:00 Aita Marin zine forum: Paterson. Zuz.: Jim Jarmusch

### 18, larunbata

Zumaiko XXXIII. Herri lasterketa. 15:45 gazteak, 17:00 helduak

### 22, asteazkena

18:30 Oxford aretoan hitzaldia: Maialen Lujanbio (Euskara, bestela ez gara zikloa)

### 24, ostirala

18:30 Musika Eskolaren Inauteri

Jaialdia

19:30 Forondan Gune elkartearen solasaldia: Homosexualitatea eta hezkuntza, guraso eta hezitzaileentzat erronka (Amelia Barquin)

### 25, larunbata

10:00 Txirrindulari proba: IX. Zumaia Saria

17:00 Torreberri Inauteri festa eta mozerro lehiaketa

### 27, astelehena

15:00 + 17:30 Maria eta Josen Pirritx, Porrotx eta Marimotots: Tipi-tapa, Korrika!

18:00-20:00 Ludotekan Inauteri Festa LH 4-6 bitarteko haurrentzat

## MARTXOA

### 1, asteazkena

18:30 Oxford aretoan hitzaldia: Idoia Etxeberria (Euskara, bestela ez gara zikloa)

### 2, osteguna

22:00 Aita Marin zine forum: Tarde para la ira. Zuz.: Raúl Arévalo

### 3, ostirala

22:30 Itzurun tabernan, BIKARRIZKETA

### 4, larunbata

11:00-13:00 Algorri Interpretazio Zentroan jolasa:

Hegazti migratzaileak ezagutzen!

(8-12 urte). Izen-ematea: 943143100 info@algorri.eu

### 5, igandea

12:00 Aita Marin antzerkia haurrentzat: Kaput, Ganso

### 7, asteartea

18:30 Oxford aretoan aurkezpena: Zaintza lanen inguruko diagnostikoa

### 8, asteazkena

18:30 Oxford aretoan hitzaldia: Belen Uranga (Euskara, bestela ez gara zikloa)

### 9, osteguna

22:00 Aita Marin antzerkia: Koaderno Zuria, Hika teatroa

### 10, ostirala

19:30 Forondan Gune elkartearen meditazio saioa

### 16, osteguna

18:00 Oxford aretoan hitzaldia: Haurraren garapena pausoz pauso (Feli Oregi)

22:00 Aita Marin zine forum:

Comoara (El Tesoro) J.B.A. Zuz.: Corneliu Porumboiu

### 23, osteguna

22:00 Aita Marin Zinegoak jaialdiko laburmetriak

### 24, ostirala

19:30 Forondan Gune elkartearen solasaldia: Homosexualitatea eta erlijioa, erliokoak, kulturak (Jose Arregi)

### 25, larunbata

19:00 Komentuan

kontzertua: Aqua Lauda Korua

### 30, osteguna

22:00 Aita Marin Zinegoak jaialdiko pelikula berezia



**Zalla** *zumaia*

- plater konbinatuak
- ogitartekoak
- oilasko erreak

Urdin Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAIA

**ZUMAIA AUTOESKOLA**  
E-mail: zumaiaautoeskola@hotmail.com

BASOIA 12  
20750 ZUMAIA  
Tel. 943561018 / Fax. 943016175

**Zumaia Hotela**  
*Jateketa Kalitate*

Alai auzlegia, 20750 Zumaia tel. 943 143 441 faxa 943 865 161

**EuroTaller**  
ZUMAIA MOTOR S.L.

José Rey Alfaro  
Gerente

Santxo Auzoa, 22  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
Tel. 943 143 143 - Fax 943 865 161  
e-mail: zumaiaomotor@telefonica.net

**EDU**  
ZUMAIA  
OPTICA

Txomin Agirre kalea 6,  
750 Zumai, Gipuzkoa  
T. 943.143.057

[www.eduoptika.com](http://www.eduoptika.com)

RPS 18/16



# Otsailean

Zumaia txartela erabilia,  
janari-dendatan gastatzeko 25€-ko  
txartelak lortuko dituzu.



Zumaia Udala



CAJA RURAL

## ZUMAIKO INAUTERIAK

# Otsailak 25-27



Zumaia Udala



IRRIMARRA ILUSTRAZIOA

**AEG**  
BITROZERAMIKA  
HK623021FB

**269€**

**%10**  
itzuliko  
dizute



**429€**

**%10**  
itzuliko  
dizute

**AEG**  
INDUKZIOA  
HK633220FB



**Pirolitikoa**

**AEG**  
LABEA  
BP301302FM

**429€**

**%10**  
itzuliko  
dizute



**Ordaindu 10  
hilabetean  
interesik  
gabe**

**AEG**  
LEHORGAILUA  
T8DBG842

**A++**

**8 kg**

**inverter  
motorra**

**649€**

**50€**  
itzuliko  
dizkizute



**AEG**  
GARBIGAILUA  
L74486WFL

**8 kg**

**1.400 bira/min**

**inverter  
motorra**

**479€**

**50€**  
itzuliko  
dizkizute



**TIEN 21**



**ENDAÑETA ZUMAIA  
ELEKTROGAILUAK**

Erribera, 8 Tel. 943 861 694  
[www.endañetazumaia.com](http://www.endañetazumaia.com)